



Oñatiko trenaren larogeigarren urteurrena

Urtiak fan doi azela, bai horixe! Gaztetan ezagutu geben Oñatiko trenak larogei urte beteko littuke, gaur egunian mar txan balego. Mekolaldetik Bitorixarako **Vasco-Navarro** trenbidia majo kostata 1919xan osotu zanian, San Prudentziotik gure herriraino be adar bat moduketia eskatu euen agintari oñatiarrak. Handik lau urtera bete zan txantxikua- rron desiu: 1923ko iraillaren 30ian, San Migel bixamonian, inaugurau zan Elorregi auzotik Oñatirainoko trenbide-zatixa.

Hillabete honetako fotografixan egun haretako protagonista batzuk dakartzuegu. Halakoetan ohi zanez, agintari erlijioso eta zibillak alkartu ziran Oñatin, inauguraziño elizkizun eta gaiñerako ospakizunak egitteko. Bestiak beste, **Victoria Eugenia** erregiña agiri da erdixan, dotore eta tente asko; bere eskuman daguena, **Juan Gordo** jauna, Oñatiko alkatia zan momentu haretan; alkatiaren aurreko elizgizon kapaduna, berriz, Fr. **Zacarias Martínez**, Bitorixako obispua da; erregiñiaren ezkerretara **Julian Elorza** jauna, Gipuzkoako Diputaziño presidentia, agerketan da; obispuaren bakuluarekin daguena **Miguel Díez Ume- rez** abade oñatiarra dogu; eta intzensarixuarekin, berriz, **Jose Luis Arrazola Azkarreta**, abade oñatiarra hau be, orduan sakris- tau eklesiastikua zana.

Argazkixa San Migel parrokixako ate nagusixan atarata dago, seguruenik eskerrak emuteko *Te Deum*-a kantau eta erregi- ñiari palixo eta guzti kanporaño lagundu ondoren. Gero estaziño aldera fan ziran instalaziño barrixak bedeinkaketara, eta han- guak amaittutakuan, izugarrizko bazkarixa euki euen. agintarixak jakiña: zazpi plater eta hiru postretakua. Arratsaldian herri- tarrendako pelota-partiduak eta dantzia egon zan plaza aldian.

Dana dala, txokaitten dauen gauzatxo bat badago: ospakizunera erregiña bakarrik etortia; gaiñera kezka-arpegixa dakola esango neuke. Nun zan, ba, erregia? Nere ustez, esplikaziñua hau izan leike: **Alfonso XIII**.ak nahikua bihaleku eukan egun hareittan, aste pare bat lehenago, hillaren 12xan, Primo de Rivera jeneralak emun eben estatu-kolpia zala-eta. Gauza jakiña da errege borboia egokittu egin zala egoera barrira, azkenera orduko horrek monarkiaren akaberia eta errepublikiaren etorreria eka- rri baldin baeben be.

J. E.

Argazkixa Abaunz familiariaren bidez eskuratu dogu eta Sabino Zuzabeitia paroko jaunak emun dosku abadien gaiñeko argibide batzuk. Eskerrik asko!